

**ADMINISTRAZIO PARTIKULARREN PLEGUA, FUNTZIO ANITZEKO HAMAR EKIPOEN HORNIDURA  
("RENTING" BIDEZKOA) KONTRATAZEKO, PUBLIZITATERIK GABEKO PROZEDURA NEGOZIATU  
BITARTEZ.**

**I. KONTRATUAAREN EDUKIA**

**1. KONTRATUAAREN HELBURUA**

Kontratu honen helburua da, Aretxabaletako udal bulegoetarako funtzi anitzeko hamar ekipoen hornikuntza (alokairuan) eta haien mantentzea, eta baita Baldintza Teknikoen Pleguan deskribatzen diren, Udaletxean gaur egun dauden funtzi anitzeko bi ekipoena ere, kontratu honen Baldintza Teknikoen Pleguan aipatzen diren ezaugarriekin bat etorriz.

Ez da onartuko kontratuaren helburu osoa hartuko ez duen eskaintzarik.

**2. EPEA, PUNTUAN JARTZEA ETA ENTREGA LEKUA.**

Kontratu honen iraupena, 60 hilabetekoa izango da, hartza sinatzen den hurrengo egunetik hasita, zeina funtzi anitzeko ekipoak martxan jartzen direnean eta haien funtzionamendu egokia egiaztatzen denean egingo den.

Funtzi anitzeko ekipo horiek, kontratua sinatu eta hurrengo lanegunetik hasitako ZAZPI LANEGUNETAKO EPEAN (gehienez ere) ekarri eta puntuau jarriko dira Udaletxean.

Kontratzen den enpresa atzerapenean eroriko da baldin eta emandako epean lana betetzen ez bada; Udalak ez du, zentzu horretan aurretxazko inolako ohartarazpenik egin behar izango. Kasu horretan Plegu honetako 14. klausulan, atzerapenengatiko zigorren inguruan xedatutakoa aplikatuko da,

**3. LIZITAZIO AURREKONTUA ETA KONTRATUAAREN BALIOA**

Lizitazio prezioak ezartzen dira ekipoak hornitzeko, baita kopia bakoitzaren preziorako ere.

Lizitazaileek, ondorengo kontzeptuengatiko beren eskaintza ekonomikoa aurkeztu beharko dute:

a) Funtzi anitzeko hamar ekipoen hornidura alokairuan. Kasu honetan lizitazio gehieneko mota 19.800 €tan ezartzen da (BEZA ez dago barne), eta kopuru hori kontratuaren aurreikusitako iraupenari dagokio. Ondorioz, 60 hilabeterako, hilean gehienez 330€ko alokairu kuota ordainduko da (BEZA ez dago barne)

B) KOPIA bakoitzaren prezioa, bai txuri beltzean baita koloretan ere, A, B, C, D, eta E motako ekipoetarako, eta baita gaur egun udaletxean dauden Ricoh Aficio MP 3350 eta Ricoh Aficio MP 2550 bi ekipoetarako (edo hala badagokio, haiiek ordezkatuko dituzten ekipoetarako) ere. Kasu honetan, ekipoetarako mantentze gehieneko aurrekontua (BEZA kontuan izan gabe) da:

- Funtzi anitzetakoak: A, B, C, D motak, Ricoh Aficio MP 3350 eta Ricoh Aficio MP 2550 (edo hala badagokio, haiiek ordezkatuko dituzten ekipoetarako).
  - Inpresioa z/b: 0,009 €/orriko (BEZA ez dago barne) (235.200 kopia/urteko)
  - Koloretako inpresioa: 0,0601 €/orriko (BEZA ez dago barne) (70.800 kopia/urteko)

- E motako inprimagailuak:
  - Inpresioa z/b: 0,0120 €/orriko (BEZA ez dago barne) (48.000 kopia/urteko)

Dokumentuen eskaneatzeak ez dio Udalari inolako kosturik eragingo.

Eskaintzetan, aleko kostuek lau dezimal soilik eduki ahal izango dituzte, eta ekipoen alokairuari (renting-ari) dagokion kuotak, bi dezimal, gainontzekoak baztertuz eta zifrak borobildu gabe.

Prezioan, hornikuntzaren ondorioz sortzen diren gastu eta zerga guztiak barne daudela ulertuko da, baita garraioa, zamalanak eta ekipoak puntuau jartzea ere.

Ez da lizitazio aurrekontua gaindituko duen proposamenik onartuko; ezta kontratuaren xede diren ekipo guztien mantentzea aurreikusiko ez duen eskaintzarik ere.

Urteko kopia kontsumoa aurreikusi da ekipo mota desberdinatarako era orientagarrian. Baino inpresio estimazioek ez dute gutxieneko kontsumoa esan nahi, eskaintzak homogeneotasunez eratzeko soilik dira. Edozein eratara, benetan inprimatutako orrien prezioa ordainduko da.

Administrazioak bere gain hartu beharko duen kontratuaren gutxi gorabeherako balioa, 60 hilabetetarako 45.013,8 €koa izango da, gehi dagokion BEZA

**II Eranskinean jasotzen da, lizitataile bakoitzak bere eskaintza aurkeztekoko (C kartazala) erabili beharko duen proposamen ekonomikoaren eredu eta beharrezkoia izango da eredu hori erabiltzea, eskaintzak homogeneotasun terminoetan erkatu ahal izateko.**

#### **4. FINANTZAZIOA**

Kontratuaren prezioa ordaindu ahal izateko, aurreikusita dago finantzazioa aurtengo aurrekontuetan. Era berean, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak, egoki diren maileguak erreserbatuko ditu, kontratuaren iraupenak hartzen dituen ondorengo ekitaldietako aurrekontuetan

#### **5. DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA**

Prezioa ordaintzeko, hilero faktura aurkeztu beharko da eta dagokion udal teknikariak gainbegiratu eta kontratatu ondoren, hala badagokio eskumena duen organoak onartu egingo du.

Faktura onartu ondoren, ordaindu egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 216 artikuluan legez aurreikusitako epeetan.

#### **6. PREZIOAK BERRIKUSTEA**

Kontratu honen prezioa berrikusi ahal izango da, baldin eta gauzatu bada gutxienez bere zenbatekoaren %20an eta esleipena egin zenetik urte bete igaro bada, erreferentziatzat hartuz, kontratua sinatu aurreko urteko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoen Prezioaren Indizearen %85a.

Hori guztia berrikusketa egiteko unea iristen denean, sistema, arau berdin batek edo goragoko batek aldatu izanaren kaltetan gabe. Hala izango balitz une horretan indarrean dagoen sistema aplikatuko da.

## 7. BERMEAK

Behin behineko bermea: Ez da exijitzen

Behin-betiko bermea:

Kontratacio organoak, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailari eskatuko dio, aurkeztu dezala, behin betiko berme gisara esleipenaren zenbatekoaren %5a (BEZa ez dago barne) ordaindu izana egiazatuko duen dokumentazioa, errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik hasitako 10 lanugunetako epean.

Berme hori, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 96 artikuluan ezarritako bitarteko edozein erabilita ordaindu ahal izango da. Ordaindu izana egiaztu ahal izango da, bitarteko elektronikoen, informatikoen edo telematikoen bitartez Betekizun hori, lizitatzailari egotz dakioken arrazoiengatik betetzen ez bada, ez zaio kontratua esleituko.

Bermea, bai osoa baita partziala ere, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 102 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri itzuliko da, berme epea iragan eta esleipendunak kontratuzko betebehar guztiak betetzen dituenean.

## 8. HIZKUNTA BETEBEHARRAK

**8.1** Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren **araubidea**, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, bestek beste, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan, eta Aretxabaletako Udalak 2013ko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartutako “Aretxabaletako Udaleko Euskararen Erabilera Plana: V. plangintzaldia (2013-2017)” dokumentuan.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek kontratua euskaraz gauzatzea eskatzen dute; izan ere, zerbitzu hartzaileak Euskararen Erabilera Plan baten eraginpean dauden udal langileak dira.

Baldintza plegu honetan ezartzen diren hizkuntza baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginaren ondorioetarako, eta hortaz, kontratuaren gainerako baldintzak ez betetzeak dituen **ondorio berdinak** izango ditu: zigor sistema aplikatza edo kontratua suntsiaraztea.

**8.2** **Zerbitzu hizkuntza** euskara izango da, eta horrenbestez, kontrataturako enpresak euskaraz eman beharko ditu erabiltzaileentzako formazio saioak.

**8.3** Enpresa esleipendunak udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztieta; eta beraz, enpresak **Udalarekin** dituen **harreman administratiboak** (kontratu, faktura, txosten,...) euskaraz izango dira, edo, onartzen den kasuetan, ele bietan.

**8.4** Zerbitzuaren kontratacioa sustatu duen administrazio atalak berak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen **jarraipena**, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinatan, eta horren berri emango dio Euskara Zerbitzuari. Ondoren, Euskara Zerbitzuak bere balorazioa egingo du oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

## 9. KONTRATUA GAUZATZEA

Ondasunak, plegu honetan ezarritako denboran eta lekuaren entregatu beharko dira, baldintza teknikoekin eta administrazioko klausulekin bat etorri. Edozein eratara, Udalak beretzako gordetzen du hitzartutakoa ez den beste leku bat ezartzeko ahalmena kontrataua gauzatzen den bitartean.

Kontrataua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da eta hark ez du, ondasunetan izandako matxura edo kalteengatik, edo haien galtzeagatik kalte-ordinak jasotzeko inolako eskubiderik izango, baldin eta galera edo kalte horiek udaletxean entregatu baino lehen gertatu badira eta beti ere Udalak haien jasotzerakoan berandutzan erori ez bada.

Kontrataua Udalaren zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrolpean gauzatuko da ahoz nahiz idatziz.

Kontratistari edo haren menpeko edonori egotz dakizkiokeen ekintza edo hutsegiteengatik, kontratuaren martxa ona zalantzan jartzen bada, Udalak haren gauzatze egokia lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea exijitu ahal izango du.

## **10. KONTRATISTAREN LAN-BETEKIZUNAK**

Kontratista behartua dago kontratu honen xede diren lanetan lan egiten duten langileekiko, lan arloan, Gizarte Segurantza arloan eta laneko segurtasun eta higiene arloan indarrean dauden lege xedapenak betetzera

## **11. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUAREN GAUZATZEAN BESTE HIRUGARREN BATZUEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK.**

Kontratista, kontratuaren gauzatzeak eska ditzakeen eragiketen ondorioz izandako kalte ordain guztien erantzule izango da, Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 214 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri.

## **12. KONTRATUA ALDATZEA**

Administrazioak kontrataua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLTBren 107 artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat tarteko denean eta beti ere hala eginda lizitazio eta esleipenerako oinarrizko baldintzak aldatzen ez diren bitartean.

Kontratistak derrigorrez bete beharko ditu aipatu berri diren balizko aldaketa horiek.

## **13. HORNIGAIA HARTZEA ETA BERME EPEA**

Hornigaia entregatu eta hilabeteko epean, haren hartzearen egintza formala egingo da.

Hornigaia hartzeko baldintza egokienetan ez badago adierazi egin beharko da espresuki eta aginduak eman beharko zaizkio kontratistari akatsak konpon ditzan edo hornigai berri bat ekar dezan, hitzartutakoarekin bat etorri. Konponketa edo ordezkatzea egin ezean, Administrazioak kontratistaren kontura utziko ditu, eta ordaintzeaz salbuetsita geratuko da edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango du. Era berean BOST urteko epea ezarriko da, hartze formala egiten denetik hasita, berme gisa Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginean eta Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legearen Araudi Orokorean aurreikusitako ondorioetarako.

Udalak, berme epearen barruan akatsak dituzten hornigaiaiak ordezkatzea edo nahikoa izango balitz, konpontzeko eskubidea izango du.

Udalak, berme epearen barruan egiaztatuko balu, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo bizioengatik hornigaiaiak ez direla gai lortu nahi diren helburuetarako, eta uste izango balitz haien

konponketa edo ordezkapena ez dela nahikoa izango helburua lortzeko, baztertu ahal izango ditu eta kontratistari bueltatu.

#### **14. KONTRATISTARI EZARRITAKO ZIGORRAK, EZ BETETZEAGATIK**

##### **Zerbitzu mailako (SLA) akordioen ez betetzeagatiko zigorrak:**

Udalak lanen bilakaera eta Zerbitzuaren funtzionamendu egokia gainbegiratu ahal izango ditu Egindako ikusketen txostenak egingo dira eta negatiboak balira arau-hausteengatiko ohartarazpena egingo da eta dagozkion zigorrak ondorioztatuko dira.

Arau-hauste arinak:

- Udalari eskainitako konponketen epeak ez betetzea.
- Matxura berbera errepikatzea, makina berdinean eta 30 eguneko epean (arau-hauste bat kontatuko da errepikapen bakoitzeko)

Arau-hauste larriak:

- Hilabeteko epean, arau-hauste arinengatiko hiru ohartarazpen izatea, Udalaren arduradunen esanetan.
- Ekipoak hornitzeko eta haien zerbitzuan jartzeko Udalarekin hitzartutako epeak ez betetzea

Arau-hausteengatiko zigorrak:

a) Arau-hauste arinei jarriko zaien zigorra ohartarazpena izango da, eta bertan ohartarazpena egiteko arrazoia aipatuko dira.

b) Arau-hauste larrietarako ondorengo zigorrak ezarriko dira;

- Arau-hauste larri bakoitza, gertatu den hilabete bakoitzari dagokion alokatze kontzeptuan %10a jaitsita zigortuko da.

Gainera, makina berean errepikatutako matxurengatiko hiru (3) arau-hauste larri pilatuko balira 2 hilabeteko epean, %10eko zigorra ezarriko zaio fakturan, ekipo guztiak azken hilabeteko kopien fakturazioaren zenbateko osoaren gain.

Hamabi hilabeteko epean, 6 arau-hauste larri baino gehiago pilatuko balira, Udalak kontratua bertan behera uztea erabaki ahal izango du.

#### **15. KONTRATU BERTAN BEHERA UZTEKO ARRAZOIAK**

Kontratua bertan behera uzteko arrazoia dira, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223 eta 299 artikuluetan ezarritakoak.

#### **16. AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratu honetan ez da onartuko azpikontrataziorik.

#### **17. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK**

Administrazioari dagokio, kontratua interpretatzea, haren betetzeak eragin ditzakeen zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, bertan behera uztea eta horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Araudi Orokorean ezarritako betekizunekin bat etorriz eta aurreikusitako ondorioetarako .

## II.- KONTRATAZEKO PROZEDURA

### **18. ESLEIPEN PROZEDURA**

Kontratu honen esleipena, **publizitate gabeko prozedura negoziatua** erabiliz egingo da, SPKLTBren 169.1 eta 178 artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorri, Lege horretako 173.f) eta 177.2 artikuluetan aurreikusitako suposizioa delako. Espedientearen tramitazioa ohikoa izango da.

Ez da beharrezkoia izango prozedurari publizitatea ematea; konkurrentzia printzipioa asetzeko nahikoa izango da, eskaintzak, kontratuaren helburua gauzatzeko gaitasuna duten hiru enpresariri (gutxienez) eskatzea, beti ere hori egitea ahal izango balitz.

Negoziazoak, Plegu honen 21. klausulan aipatzen diren aspektu ekonomikoak eta teknikoak edukiko ditu kontuan.

### **19. KONTRATAZEKO GAITASUNA**

Zuzenbidezko eta jarduteko gaitasuna izan eta Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 60 artikuluan aipatzen diren kontratazko inolako debekurik ez duten, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala egiaztatu duten pertsona fisiko zein juridikoek, parte hartu ahal izango dute kontratazio prozedura honetan. Enpresarien kaudimena egiaztu eta neurriko da e) letran ezarritako bitartekoak erabiliz.

Era berean parte hartu ahal izango dute beren izenean edo horretarako emandako ahalorde asketsiaren bitartez baimenduta egongo den beste pertsona batek ordezkatuta. Pertsona juridiko baten ordezkotzan, bertako kide batek jarduten duenean, agirien bitartez frogatuko beharko du horretarako ahalmena dagoela. Kasu batean zein bestean, ordezkariak ere ez du aipatutako kontratazko debekurik izan beharko.

Enpresariekin, era berean, kontratu honen xede den jarduera edo emakida gauzatzeko eskatuko den enpresa-gaitasuna edo profesionala eduki beharko dute

#### **Administrazio agiriak:**

- a) **Parte hartzalearen edo haren ordezkoaren Nortasun Agiriaren fotokopia.** Gainera, beste pertsona baten edo erakunde baten ordezkotzan jarduten den kasuetarako, notario-ahalordea
- b) **Enpresariaren izaera juridikoa egiaztatzen dutenak.** Enpresa pertsona juridikoa bada, eratze edo aldatze eskritura, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua. Bakarrik jarduten duten enpresariekin beharrezkoia izango dute Nortasun Agiriaren legezkotutako fotokopia edo hura ordezkatuko duenarena.

**Europako Batasuneko kideak diren Estatuetako naziotasuna duten, enpresari ez espanolen** jarduteko gaitasuna, kokatuta dauden Estatuaren legediarekin bat etorri dagokion erregistroan duten inskribapenaren bidez frogatuko da, edo bestela, erregelamenduz ezarritako terminoetan egindako zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztuz, aplikaziozko xedapen komunitarioekin bat etorri

**Gainontzeko atzerriko enpresariekin,** dagokion estatuan Espaniak duen Misio Diplomatiko Iraunkorraren, edo enpresaren egoitza kokatuta egongo den lurralteko eremuko Konsul Bulegoaren txostena erabiliz frogatuko dute beren jarduteko gaitasuna

c) Aitorpenen arduratsua, Sektore Publikoko Kontratuaren Urriaren 30eko 30/2007 Legearen 60. artikuluan ezarritako **Kontratatzeko inolako debekurik ez dutela** esanez. Aitorpenean espresuki adierazi beharko da, indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrok eta gizarte segurantzarekikoak kitatuta dituela, ez badu hori egiaztatuko duen ziurtagiririk aurkeztu. **III ERANSKINA**

d) **EJZn, altan egotea ziurtatu beharko da** kontratuaren helburuari dagokion epigrafean, alta aurkeztuta –indarrean dagoen ekitaldia bada- edo EJZren azken errezipoa gainontzeko kasuetan. Edozein kasutan aitorpenen arduratsua ere aurkeztu beharko da, esanez ez duela bajarik eman aipatutako zergaren matrikularen. **IV ERANSKINA**

**e) Kontratistaren kaudimen ekonomikoa eta teknikoa:**

Kaudimena, 3/2011 EDLren 75 eta 78 artikuluetan aipatzen diren bitarteko bidez frogatuko da; zehazki ondorengo bitartekoren baten edo batzuen bidez:

- **Kaudimen ekonomikoari** dagokionez:

Finantza erakundeen aitorpenak, edo arrisku profesionalengatiko kalte-ordinen asegurua dutela frogatuta.

- **Kaudimen tekniko edo profesionalari** dagokionez:

Kontratu honen xedearen antzeko ezaugarriak dituzten, azken urtean egindako hornikuntza nagusien zerrenda, haien zenbatekoak, data eta hartzalea zein izan den (publikoa nahiz pribatua) Egindako zerbitzuak edo lanak, gaitutako organo batek emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzalea sektore publikoko erakunde bat denean. Hartzalea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira eta ziurtagiri hori ezean, enpresariak egindako aitorpenaren bidez.

f) **Hainbat enpresarik, Enpresarien Aldi baterako Elkarketa bat osatu ondoren lizitazioan parte hartzea erabakiko balute**, enpresari bakoitzak bere egiteko gaitasuna frogatu beharko du aurreko puntuetaun ezarritakoak kontutan hartuz., eta esleipendun izanez gero, EAE formalki osatuko dutenaren konpromisoa aurkeztu beharko du. Era berean proposamenean adierazi egin beharko da zein zati egingo lukeen EAEko kide bakoitzak, guztien kaudimen-baldintzak zehaztu eta egiaztatu ahal izateko

g)**Atzerriko enpresak badira**, aitorpena egin beharko dute Spainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla adieraziz, kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztieta rako, eta, hala egokituz gero, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela.

Proposamenak aurkezterakoan ez dago zertan, klausula honetako a), b), c), d), e), f) eta g) letretan eskatzen diren agiriak aurkeztu beharrik; hala izanez gero esleipendunak kontratua sinatu aurretik aurkeztu beharko ditu.

Era berean, a), b), eta e) letretan adierazitako gorabeherak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialaren, Estatuko Kontratista eta Enpresa sailkatuen Erregistro Ofizialaren ziurtagiri bidez egiaztatu ahal izango dira edo, erkidegoko sailkapen ziurtagiriaren bitarte, SPKLTBren 84. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Ziurtagiri horrekin batera, Lizitatzailaren aitorpenen arduratsua aurkeztu beharko da, non adieraziko den, dagokion ziurtagirian ageri diren gora beherek ez dutela inolako aldaketarik izan.

Aurreko atalean aipatzen den ziurtagiria, elektronikoki aurkeztu ahal izango da.

Eskatutako agirien jatorrizko bertsioa edo kopia aurkeztu ahal izango da; azken kasu horretan administrazioak edo notario batek konpultsatu edo kautotu beharko ditu. Agiri horien fotokopia ere aurkeztu ahal izango da, baina kasu horretan, kontratuaren esleipendunak, hora sinatu aurretik, fotokopia horien egiazkotasuna egiaztatu beharko du, jatorrizkoak erakutsiz.

## **20. PROPOSAMENAK, AGIRIAK ETA AURKEZTEKO EPEAK**

Kontratacio organoak, kontratua gauzatzeko gaitasuna eta kaudimena duten hiru enpresari (gutxienez) bidaliko die parte-hartzeko gonbita, lizitazioan parte har dezaten.

Proposamenak paperean aurkeztuko dira eta sekretuak izango dira, eta aurkezte hutsak, Plegu honetako klausulak eta baldintza teknikoen Pleguetakoak bete betean eta baldintzarik gabe onartzea dakarkio enpresariari

Proposamenak Aretxabaletako Udaletxeko Erregistro Orokorean aurkeztuko dira, jendaurreko ordutegian, lizitazioan parte hartzeko gonbita jasotzen den hurrengo egunetik hasi eta **10 egun naturaleko epean**.

Ez da onartuko, telefonoz, faxez, eta bitarteko elektroniko edo telematikoetatik aurkeztutako proposamenik.

Proposamenak postaz bidaltzen direnean enpresariak, justifikatu egin beharko du Postan bidalketa noiz egin duen, eta kontratacio organoari egun berean, eskaintza bidalia izan dela jakinarazi, telex, fax edo telegrama bitartez, bertan, espedientearen zenbakia, kontratuaren helburuaren titulu osoa eta hautagaiaren izena adieraziz

Adierazitako telefax, fax edo telegrama hartu izanaren frogagiria, udal Idazkariak egingo duen eginbidearen bitartez egingo da. Bi betekizun horiek betetzen ez badira, proposamena ez da onartuko, kontratacio organoak, lizitazio iragarkian adierazitako epea baino beranduago, hau da, jarritako eguna eta ordua baino beranduago jasotzen badu. Edozein eratara, jarritako eguna pasa eta hamar egunera dokumentazioa oraindik ere jaso gabe badago, ez da onartua izango

Lizitataile bakotzak ezingo du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean ezingo du, beste batzuekin batera Aldi Baterako Enpresa Batasuna sortuta proposamenik aurkeztu, baldin eta bakarka egin badu, edo Aldi Baterako bat baino Enpresa gehiagotan badago. Arau hauek hausten dituztenen proposamenik ez da onartuko.

Lizitataileek **HIRU KARTAZAL ITXI** aurkeztu beharko dituzte:

Kartazal horien kanpo aldean "**Funtzio anitzeko hamar ekipo, alokairuan (renting) hornitzeko kontratuaren esleipen prozeduran parte hartzeko eskaintza**" jarriko du; gainera enpresaren izena, lizitatailearen izen-abizenak eta NA zenbakia edo IFKrena agertuko dira eta haren sinadura eta kartazalari eman zailen izena (A,B edo C) Barruan, ondorengo agiriak egongo dira:

**A KARTAZALA:AITORPEN ARDURATSUA( I. eranskinarekin** bat etorri) 19. Klausulan ezarritako administrazio dokumentazioaren ordez, aitorpen arduratsua aurkeztu ahal izango da, adieraziz lizitataileak Administrazioarekin kontratatzeko, legez ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta zehazki plegu honetan adierazten direnak, eta era berean esandakoa egiaztatzen duten agiria guztiak dituela, erantsiz kontratacio organoak eskatzen dionean erakusteko konpromisoa hartzen duela, eta

edozein eratara, esleipen proposamena berarentzat izango balitz, esleipena egin aurretik aurkeztuko dituela.

**B KARTAZALA: NEGOZIAZIO GAI DIREN IRIZPIDEAK. PROPOSAMEN TEKNIKOA: BALIO JUDIZIOPEKO IRIZPIDEAK**

Kontratuaren xede den hornigaiaren deskribapena eta zehaztapenak, beti ere Baldintza Teknikoen Pleguan eskatutakoarekin bat etorriz.

Negozia gai diren irizpideekin zerikusia duen interesekotzat hartutako beste edozein dokumentu aurkeztuko da.

Kartazal honetan ez da sartuko C. Kartazalean aurkeztu beharreko daturik. **Datu horietakoren bat B kartazalean aurkeztuko balitz, lizitaztzailea prozeduratik kanpora geratuko litzateke eta ez litzateke C kartazala irekiko.**

**C KARTAZALA: NEGOZIAZIO GAI DIREN IRIZPIDEAK. PROPOSAMEN EKONOMIKOA: AUTOMATIKOKI EBALUATUKO DIREN IRIZPIDEAK**

**II. Eranskinean** ageri den proposamen ereduaren arabera.

Lizitaztzaileak sinatura aurkeztuko duen dokumentu idatzian adierazi beharko du, **II. Eranskinean** agertzen den ereduaren arabera, kontratuaren helburua gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, errespetatuz edozein kasutan lizitazio mota, termino zehatz batzuetan.

**21. NEGOZIAGAI IZAN DAITEZKEEN KUESTIOAK ETA KONTRATUAREN ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK**

Kontratua negoziatzeko eta esleitzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

**A) Balio judiziopekoak diren irizpideak, eta formula bidez neurten ez direnak. Gehienez ere 30 puntu emango dira**

- 1) Ekipoen zehaztapen teknikoak: Gehienez ere 20 puntu.
- 2) Gaur egun dauden bi ekipoak aldatzea, eta horien ordez mailako goragoko ezaugarriak dituzten beste bi jartzea: Gehienez ere 6,5 puntu.
- 3) Zerbitzu Mailan, maila goragoko baldintzak (SLA): Gehienez ere 2 puntu.
- 4) Plotter-aren eta scanner-aren mantentze eta berme epearen handitzea Gehienez ere 1,5 puntu.

**B) Automatikoki neurten diren irizpideak: Gehienez ere 70 puntu.**

- 1) Ekipoen prezioa: Hamar ekipoen, 60 hilabeteetako alokairuaren balioa adieraziko da, BEZarik gabe. Preziorik baxuenari 40 puntu emango zaizkio
- 2) Mantentze lanen prezioa: KOPIA mota bakoitzaren prezioa (txuri beltza zein koloretakoa) adieraziko da, gehienez ere lau dezimalekin, A, B, C, D, eta E motako ekipoetarako, eta baita gaur egun udaletxearen dauden bi ekipoetarako edo hala badagokio, haien ordezkatuko dituzten ekipoetarako ere. Preziorik baxuenari 30 puntu emango zaizkio. Ekipoetarako gehieneko mantentze aurrekontua (BEZa kontuan izan gabe) da:

- Funtzio anitzetakoak: A, B, C, D motak, Ricoh Aficio MP 3350 eta Ricoh Aficio MP 2550 (edo hala badagokio, hainek ordezkatuko dituzten ekipoetarako):
  - Inpresioa z/b: 0,009 €/orriko (BEZA ez dago barne) (235.200 kopia/urteko)
  - Koloretako inpresioa: 0,0601 €/orriko (BEZA ez dago barne) (70.800 kopia/urteko)
- E motako inprimagailuak:
  - Inpresioa z/b: 0,0120 €/orriko (BEZA ez dago barne) (48.000 kopia/urteko)

Bi kasuetan, lizitatzaleak eskainitako preziorik onenari gehieneko puntuazio emango zaio. Gainontzeko eskaintzak ondorengo formula erabilita kalkulatuko dira:

Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa= gehieneko puntuazioa  $\times$  [lizitatzileen arteko eskaintzarik onena](#)  
Baloratzen den lizitatzilearen eskaintza ekonomikoa

## 22. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio mahaia ondorengo hauek osatuko dute:

- Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaieren presidente izango dena.
- Fco. Javier Mendizabal Garate jauna, Bokala (Udal Idazkaria).
- Juan Antonio Martinez de Aguirre Etxabe jauna, Bokala (Udal Kontu-hartzalea).
- Leire Uribeitia Gandiaga, andrea, Bokala.
- Jose Miguel Uribarren Azpiazu jauna, Bokala.
- Begoña Arenaza Bengoa andrea, mahaieren idazkari lanak egingo dituena.

## 23. DOKUMENTUAK KALIFIKATZEA ETA KARTAZALAK IREKITZEA

Eskaintzak aurkezteko epea iragan ondoren, lizitatzaleek, A kartazalean aurkeztu duten dokumentazio orokorra kalifikatuko da. Horretarako Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra arautzen duen, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 81 artikulua eta hurrengoa betez jardungo da.

Lizitatzileen gaitasuna eta kaudimena 19. eta 20. klausuletan ezarritakoarekin bat etorriz egiaztago ondoren, eskaintzen negoziazio fasea irekiko da, 21. klausulan ezarritako irizpideekin eta kontratuaren helburuarekin zerikusia duten aurkeztutako eskaintzen aspektu teknikoekin, ekonomikoekin edo/eta logistikoekin bat etorriz .

## 24. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratu honen esleipena, publizitate gabeko prozedura negoziatua izango da, zeinetan esleipena, kontratazio organoak behar bezala justifikatuta hautatuko duen lizitatzilearentzat izango den, hautagai ezberdinak kontsultak egin ondoren eta kontratuaren baldintzak haietako batekin edo batzuekin negoziatu ondoren, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateginaren 169 artikuluarekin bat etorriz.

### Negoziazio faseak:

Negoziazioa bi fasetan egingo da:

Lehenengo fase batean kontratazio organoak B kartazalean jasotako proposamenak ebaluatuko ditu eta jarraian eta egintza berean, C kartazalean aurkeztutako eskaintza ekonomikoak irekiko dira; hori eginda hautagai bakoitzari, zein lekutan dagoen jakinaraziko zaio, A kartazalean seinalatutako helbide elektronikora mezu bat bidaliz. Leku hori, C kartazaleko balorazioa (eskaintza ekonomikoa) eta B kartazalekoa (irizpide teknikoak) batuta aterako da. Ezingo da hautagaien izenik zabaldu.

Bigarren fasean, Mahaiak, lizitatzale guztiei lehen eskaintza hobetuko duen bigarren eskaintza bat aurkezteko (berrogeita zortzi orduko epean gehienez ere) gonbita egin ondoren, aurkeztutako kartazalak irekiko ditu (hobekuntza kartazala deitzen direnak) eta aurkeztutako hobekuntzak aztertuko ditu. Lortutako puntuazio berriak, bigarren proposamena aurkezteko gonbita egin zaien hautagaiei jakinaraziko zaizkie, eta esleipen proposamena egingo zaio kontratazio mahaiari, beti ere esleipenerako ezarritako irizpideak kontuan izanik.

Prozeduran, azalpen berdina emango zaie hautagai guztiei. Ez zaio inolako hautagairi bere mesederako eta besteen kalterako izango den informazio partikularrik emango. Berdintasun printzipioa bermatu ahal izateko eta interesatu guztiei egoki diren erantzunak emateko, kontratazio organoak, administrazio dokumentazioa jasotzen duen A kartazalean lizitatzale bakoitzak izendatu duena erabiliko du komunikaziorako eta harremanetarako.

Aurkeztutako proposamenak izaera irmoa dute eta edozein eratara prozedura bukatu arte (gehieneko epea) mantendu beharko dira.

Prozeduraren edozein momentutan, kontratazio organoak beren eskaintzaren aspekturen bat argitu dezatela, edo kasua balitz antzemandako akats nabarmenak zuzendu ditzatela eskatu ahal izango die parte hartzen duten enpresei, eta beren azalpenetan ezingo dute proposamenaren funtsezko elementurik aldatu ezta konpetenzia faltsutu ere.

Negoziazioan zehar emandako pausu guztiak jasota geratu beharko dira expedientearen.

Negoziazio fasea amaituta, proportziorik gabekotzat edo ohiz kanpokotzat hartu izan ez diren, enpresa edo profesional lizitatzileen eskaintzak baloratuko dira, eta eskaintzarik onena (ekonomikoa eta teknikoa) aurkeztu duen lizitatzialeari esleitzea proposatuko zaio kontratazio organoari.

Proposamen bat baino gehiago berdinduta egongo balira, esleipenerako oinarri diren irizpideen ikuspegitik onenak direnez, lehentasuna izango dute, baldin eta egiaztapen dokumentazioa aurkeztu badute, beren plantillan plantila osoaren %2tik gorako langile elbarri dituzten enpresak; hala eta guztiz ere, berdintasunak bere horretan jarraituko balu, zozketa egingo da.

## **25. DOKUMENTAZIOA ESKATZEA**

Kontratazio organoak, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzialeari eskatuko dio, ondorengo dokumentazioa aurkeztu dezala, errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik hasitako **10 lanegunetako epean**.

- a) A kartazalean aurkeztutako, kontratatzeko gaitasunari eta kaudimenari dagokion aitorpen arduratsuan adierazitako dokumentazioa. Aurkeztutako dokumentazioan akats materialik antzemango balitz, hiru eguneko epea eman ahal izango du, hala iritziz gero, lizitatzaleak konpon dezan.
- b) Behin betiko bermea ordaindu izanaren frogagiria.
- c) Zerga betebeharrok eta gizarte segurantzarekikoak kitatuta eta egunean dituela egiaztatuko duen dokumentazioa, ahalmendutako administrazioek emandakoa (ziurtagiriak).

- d) Kontratuaren xeda gauzatzeko nahikoa estaldura ekonomikoa izango duen Erantzukizun Zibileko Aseguruaren poliza kontratatuta izanaren frogagiriak eta hura ordaindu izanaren frogagiria.  
e) 19. klausulan ezarritako egiaztatze dokumentazioa.

Errekeriemendua emandako epean beteko ez balitz, ulertuko da lizitatzailak eskaintza erretiratua egin duela eta errekerimendu berri bat egingo zaio, haren hurrengoa geratu den edo diren enpresari/enpresei.

## **26. KONTRATUA ESLEITZEA**

Kontratacio organoak kontratua esleitu egingo du, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik hasitako hamabost eguneko epean, gehienez ere. Epe horretan lizitatuko ez balitz, enpresariak aurkeztutako proposamena erretiratzeko eta ordaindutako bermea itzultzeko eskubidea izango du.

Kontratua Aldi Baterako Enpresarien Elkartea bati esleituko balitzao, haien, elkarrean eratu izana egiaztu beharko dute eskritura publikoan, kontratua sinatzeko emandako epearen barruan eta Elkarrean horri eman zaion IFZ. aurkeztu beharko dute.

## **27. KONTRATUA HOBETZEA ETA SINATZEA**

Kontratua administrazio dokumentuan jaso eta sinatuko da, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik hasitako hamabost (15) eguneko epean eta agiri hori nahikoa izango da izango da edozein erregistro publikora sartzeko. Epe horretan lizitatzaila azaldu beharko da kontratua sinatzeko.

## **III.- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA**

### **28. KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA**

Plegu edo Orri hauen arabera egindako kontratua administrazio-mailakoa izango da eta Pleguetan ezarritakoak arautuko du eta berarekin batera aurkeztutako dokumentazio teknikoak.

Kontratuan bertan zehaztu ez den guztiari dagokionez, ondoko arautegia aplikatuko da:

- Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege dekretu Legegilea.
- Sektore Publikoaren Kontratuaren urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege dekretua.
- Herri Administrazioen Kontratuaren Araudi Orokorra onartzen duen, urriaren 12ko 1098/2001 Erret Dekretua, 3/2011 Errege Dekretu legegilearen kontra egiten ez duen guztian.
- Eta Herri Administrazioetako kontratacioari aplikazioekoa zaizkion gainontzeko arauak.

Administrazio Klausula Partikularren Plegu honen eta espedientearekin batera aurkeztutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik emango balitz Plegu honetan xedatutakoa izango da nagausituko dena eta aintzat hartuko dena.

### **29. IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA**

Kontratazio honek berarekin badakar izaera pertsonaleko datuak erabili behar izatea, kontratistak, Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin zerikusia duten SPKLTBren Hogeita Seigarren Xedapen Gehigarritik ondorioztatutako betekizunak bete beharko ditu eta hura garatzen duen araudia.

### **30. JURISDIKZIO AGINPIDEDUNA**

Kontratatu honetatik ondoriozta daitezkeen gai gatazkatsuak edo sortu ahal diren auziak, gaitutako kontratazio organoak ebatzikor ditu. Hark hartutako erabakiek administrazioko bideari amaiera emango diote eta inpugnatu ahal izango dira administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren aurrean, SPKLTBren 40tik 49ra bitarteko artikuluek edota herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Komunaren Araudi Juridikoaren azaroaren 26ko 30/1992 Legean araututako edozeinek arautzen duten kontratazio gaietako errekurso berezia tartekatzearen kaltetan gabe.

.....n, .....(e)ko.....(r)en .....(e)an

## I ERANSKINA: AITORPEN ARDURATSUAREN EREDUA

..... Jaunak, jakinarazpenak egiteko ..... kalean..... zenbakian bizi denak (NA ..... ) ..... Erakundearen izenean (IFK.....) telefono zk..... e-maila.....

Aretxabaletako udalak bulegoetarako funtzioko anitzeko hamar ekipoen hornikuntza (alokairuan) eta haien mantentzea, eta Baldintza Teknikoen Pleguan deskribatzen diren, Udaletxeen gaur egun dauden funtzioko anitzeko bi ekiporen mantentzea, arautuko dituen kontratuaren lizitazioan parte hartzeari begira ondorengoa.

### AITORTZEN DU, BERE ERANTZUKIZUN PEAN:

**LEHENA.** Funtzioko anitzeko hamar ekipoen hornikuntzaren (alokairuan) kontratazioan eta Baldintza Teknikoen Pleguan deskribatzen diren, Udaletxeen gaur egun dauden funtzioko anitzeko bi ekiporen mantentzearen kontratazioan parte hartzeko asmoa duela.

**BIGARRENA.** Kontratuaren esleipendun izateko Sektore Publikoaren Kontratuaren Legearen Testu Beginaren 146 artikuluaren lehen atalean eskatutako aldez aurreko betekizun guztia betetzen dituela.

- ..... enpresaren izenean jarduten duela, zeina nahikoa den izaera juridikoa duen.
- Behar bezala sailkatuta dagoela edo hala badagokio, lizitazio honetan eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionalaren betekizunak betetzen dituela
- Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Beginaren 60. artikuluan jasota dauden kontratatzeko debekurik ez duela eta indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharra eti gizarte segurantzarekikoak kitatuta dituela.
- Jarduera Ekonomikoen Zergaren epigrafean alta emanda duela edo hura betetzetik salbuetsita dagoela egiaztatzen duen aitorpena
- Espainiako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla, kontratuarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztiarrazo, eta, hala egokituz gero, lehiatzaldeari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egingo diotela.

·Jakinarazpenak egin ahal izateko helbide elektronikoa ondorengoa dela.....

**HIRUGARRENA.** Aitorpen honen bigarren atalean aipatzen diren agiriak dituela eta egiazkoak direla frogatzeko konpromisoa hartzen duela, kontratuaren esleipendun gertatuz gero edo hori eskatzen zaion edozein momentutan.

Eta horrela jasota gera dadin ondorengo aitorpen hau sinatzen dut.

.....n, .....(e)ko.....(r)en .....(e)an

Sinatuta:

**II ERANSKINA. LIZITATZAILEEK AURKEZTUKO DITUZTEN PROPOSAMENEK BETE BEHARREKO PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA.**

..... Jaunak, jakinarazpenak egiteko ..... kalean..... zenbakian bizi denak (NA ..... ) Erakundearen izenean (IFK.....) telefono zk..... e-maila.....

Publizitaterik gabeko prozedura ireki bidez egingo den, funtzió anitzeko hamar ekipoen hornikuntzaren (alokairuan) kontratazioan parte hartzeko deialdiaz jakutu izanik, eta kontratuaren oinarri diren Baldintza Teknikoen Pleguak eta Administrazioko Klausula Partikularrak ezagututa, bere osotasunean onartzen ditudala eta kontratu horren helburua, pleguetan ezarritakoa zehatz-mehatz jarraituz betetzeko konpromisoa hartzen dudala ondorengo prezioan:

- ..... € kontratuak iraungo duen 60 hilabeteengatik, gehi ..... € BEZari dagozkionak, prezioa horretan kontzeptu guztiak daudela ulertuz: zergak, tasak, gastuak, eta edozein arlo fiskaletako arbitrioak eta kontratistaren onura industriala.
- A, B, C, D motako ekipoetarako eta , Ricoh Aficio MP 3350 eta Ricoh Aficio MP 2250 (edo hala badagokio, haiek ordezkatuko dituzten ekipoetarako): Txuri beltzko kopia bakoitzeko: .....€/kopiako + .....€ BEZaren %..... dagokiona
- A, B, C, D motetako ekipoetarako: koloretako kopia bakoitzeko: .....€/kopiako + .....€ BEZaren %..... dagokiona
- E motako ekipoetarako: Txuri beltzko kopia bakoitzeko: .....€/kopiako + .....€ BEZaren %..... dagokiona
- Dokumentuen eskaneatzek ez dio Udalari inolako kosturik eragingo.

Eskaintzetan, aleko kostuek lau dezimal soilik eduki ahal izango dituzte, eta ekipoen alokairuari (renting-ari) dagokion kuotak, bi dezimal, gainontzeakoak baztertuz eta zifrak borobildu gabe.

.....n, .....(e)ko.....(r)en .....(e)an

Sinatura:

### **III ERANSKINA AITORPEN ARDURATSUA**

Jaunak/andreak, ..... bizi ..... denak NA zk.  
..... Bere izenean edo ..... kalean  
..... (herrian) dagoen ..... enpresaren izenean IFK ..... zk

#### **AITORTZEN DU**

Ez berak, ez ordezkatzen duen Merkataritza elkartea, ezta Elkartearren gobernu organoak osatzen dituzten pertsonek ere, ez dutela SPKLTBren 60 artikuluan ezarritako, Administrazioarekin Kontratatzeko inolako debekurik, ezgaitasunik ezta bateraezintasunik ere.

Era berean adierazten du enpresa horrek zerga betebeharrok eta gizarte segurantzarekikoak kitatuta dituela, JEZ alta emanda dagoela eta nahikoa den kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala dituela. .

Eta horrela jasota gera dadin, funtzio anitzeko hamar ekipoen hornidura (“renting bidezkoa”) kontratatzeko publizitaterik gabeko prozedura negoziatuan parte hartzeko aurkeztu beharreko dokumentazioaren ondorioetarako.

....., n .....(e)ko.....(r)en .....(e)an

Sinatura:

#### **IV ERANSKINA AITORPEN ARDURATSUA**

Jaunak/andreak, ..... bizi ..... denak NA zk.  
..... Bere izenean edo ..... kalean  
..... (herrian) dagoen ..... enpresaren izenean (IFK ..... zk)

Jaunak/andreak, ..... bizi denak IFK ..... zk

#### **AITORTZEN DU**

Ez duela bajarik eman Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren matrikuluan

.....n, .....(e)ko.....(r)en .....(e)an

Sinatuta:

**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DEL SUMINISTRO MEDIANTE RENTING DE DIEZ EQUIPOS MULTIFUNCIÓN POR PROCEDIMIENTO NEGOCIADO SIN PUBLICIDAD**

**II. CONTENIDO DEL CONTRATO**

**1. OBJETO DEL CONTRATO**

Constituye el objeto de este contrato el suministro y mantenimiento en concepto de arrendamiento (renting) de diez equipos multifunción para las dependencias municipales del Ayuntamiento de Aretxabaleta de conformidad con las características señaladas en el Pliego de Prescripciones Técnicas de este contrato, así como el mantenimiento de los dos equipos multifunción del Ayuntamiento descritos en el Pliego de Prescripciones Técnicas.

No se admitirá ninguna oferta que no incluya la totalidad del objeto del contrato.

**2. PLAZO, PUESTA A PUNTO Y LUGAR DE ENTREGA**

El plazo de duración del presente contrato será de 60 meses, contados a partir del día siguiente a la formalización de la recepción, la cual se formalizará una vez puestas en marcha los equipos multifunción y verificado el correcto funcionamiento de las mismas.

El plazo de entrega y puesta a punto de los equipos multifunción en las dependencias y oficinas del Ayuntamiento será como máximo de 7 DÍAS HÁBILES, contado a partir del siguiente día hábil al de la firma del contrato.

La empresa contratada se entenderá incursa en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte del Ayuntamiento. En ese caso resultará de aplicación lo dispuesto en la cláusula 14 del presente Pliego en relación a las penalidades por demora.

**3. PRESUPUESTO DE LICITACIÓN Y VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO**

Se establece el precio de licitación para el suministro de los equipos y para el precio por copia.

Los licitadores deberán presentar su oferta económica para los siguientes conceptos:

a) Suministro de diez equipos multifunción en la modalidad de renting. En este caso, el tipo máximo de licitación se establece en la cantidad de 19.800 € (IVA excluido), importe que corresponde a la duración máxima prevista del contrato. Lo que resulta una cuota mensual máxima de arrendamiento a 60 meses de 330 € (IVA excluido).

b) Precio unitario de cada COPIA tanto en blanco y negro como en color para los equipos Tipo A, Tipo B, Tipo C , Tipo D, tipo E y los dos equipos actuales del Ayuntamiento Ricoh Aficio MP 3350 y Ricoh Aficio MP 2550 (o aquellos que los sustituyan). En este caso, el presupuesto máximo del mantenimiento para los equipos (IVA excluido) es:

- Multifuncionales Tipo A, Tipo B, Tipo C, Tipo D, Ricoh Aficio MP 3350 y Ricoh Aficio MP 2550 (o aquellos que los sustituyan):
  - Impresión b/n: 0,009 €/hoja (IVA excluido) (235.200 copias/año)

– Impresión color: 0,0601 €/hoja (IVA excluido) (70.800 copias/año)

- Impresoras Tipo E:

– Impresión b/n: 0,0120 €/hoja (IVA excluido) (48.000 copias/año)

El escaneado de documentos no devengará ningún coste para este Ayuntamiento.

En las ofertas, los costes unitarios sólo podrán tener cuatro decimales, y la cuota relativa al Renting de los equipos, hasta dos decimales, desechándose el resto y sin redondear cifras.

En el precio se entenderán incluidos todos los gastos e impuestos que se ocasionen como consecuencia del suministro, incluso los de transporte, descarga y puesta a punto de los equipos.

No se admitirán proposiciones que excedan del presupuesto de licitación, ni se admitirá ninguna oferta que no incluya el mantenimiento de la totalidad de los equipos objeto de contrato.

